

III. ARGAZKI LEHIAKETA

BERTIZ JAURERRIKO NATUR PARKEA

Parte – hartzaileak:

- Argazkilaritzari zaletasuna daukan pertsona orok parte hartu dezake, adin mugarik gabe.

Gaia:

- **“Bertizko Lorategi Historiko – Artistikoko kolorezko bizitza”**. Parte hartzen duten pertsonen argazkien bidez Lorategi Historiko Artistikoko inguru ederrek sortzen dituzten giro bereziak adierazi beharko dituzte.
- Antolakuntzak lanak gordetzeko eskumena izanen du, proposatutako gaiari egokitzen direnaren arabera eta kalitate teknikoa betetzeko gutxienezko irizpide edo pertsonen errespetuari dagokionaren arabera.

Entregatze epea:

- Onarpen data, oinarrien publikazio datatik, ekainaren 5-eko 24,00h. arte izanen da Nazioarteko Ingurumen Eguna.

Lanen bidaltze edo/eta entregatzeak:

- Parte – hartzaile bakoitzak berak egindako 3 lan aurkeztu ditzake lehenagotik argitaratuak izan ez direnak.
- Digital formatuan aurkeztuko dira, 10mb-eko gehienezko pisua eta 6 mb-ko gutxienezko pisua izanik. Jpg formatua izan behar dute eta 200-300 pixel/pulgadako erresoluzioarekin.
- Lanak entregatzeko moduak hurrengoak izanen dira:
 - Parkean dagoen Turismo Bulegoan entregatzen ahalko dira CD, DVD edo pen-drive batean. Honako ordutegian: 10,00etatik 14,00etara eta 16,00etatik 19,00etara, astelehenetik larunbatera (igandetan 10,00etatik 14,00etara).
 - Edo, e.retratubertiz@gmail.com helbide elektronikora bidali daitezke.

Lanen identifikazioa NANaren bitartez egingen da. Horrela, artxiboen izena hurrengoan izan beharko da:

- NAN zenbakia eta segidan argazkiaren izenburua.
- Bertze orri batean eman beharreko datuak:

- Egilearen izen – abizenak.
- Helbidea.
- Helbide elektronikoa.
- Telefonoa.

Sariak:

Bi kategorietan sarituko dira lanak:

1. Epaimahaiaren saria: **600 €**
2. Bisitariaren saria : **300 €**

- **Sarien banaketa Iraileko hilabetean Ate Irekien Eguneko** ospakizunean izanen da, Bertizko Natur Parkean.
- Saritua adin gutxikoa izan ezker, arduraduna den heldu batez lagunduta joan beharko da saria hartzera.

Lanen aukeraketa eta epaitza :

- Epaimahaia argazkilaritzako profesionalen eta Parkeko arduradunen osatua egonen da.
- Aldez aurretik, lanen aurre-aukeraketa bat egingen da, denetara lehiarako 24 argazki geldituko direlarik, epaimahai zein bisitarien bozkarako.
- Aurkeztutako argazkiak erakusgai izanen dira denboraldi batez Lorategi Historiko – Artistikoko erakusketa aretoan. DIN A 4 formatuan erakutsiko dira.
- Bisitarien bozkek, uztailaren 1tik abuztuaren 31era egun guztian eta Lorategiko ordutegian (10etatik 14etara eta 16etatik 19,30etara) eman ahal izanen dira.
- Lorategi Historiko – Artistikokoan sartzen diran pertsonen, beraien bozkek emateko aukera izanen dute.

Argazkien argitaratzea

- Aurkeztutako argazkietan adin gutxikoak agertzen badira, guraso edo legalki ordezkatzeko dituztenen baimena beharko da.

Argazkien eskubideak

- Antolakuntzak beretzako gordetzen du bozketarako aukeratutako argazkien eskumena, libreki, euskarri informatikoetan edo promozionaletan erabiltzeko. Ez dira inola ere ez, bertze iñorri argazkien eskubideak utziko, egilearen baimena

salbu. Parte-hartzaileak, beraien argazkien gainean bertze eskubiderik ez izateaz arduratuko da.

- Antolakuntzak, irudia erreproduzitzen duen aldi orotan, egilearen izena jartzeaz arduratuko da.
- Lehiaketan partzen hartzen duen orok, baldintza guzti hauek onartzen ditu.

ANTOLATZEN DU:

